

4.5. GIZA BALIABIDEAK

4.5.1. Kontsortzioaren beraren baliabideak

Kontsortzioa egitura baino gehiago erakundeen arteko gunea da. Erakunde izaera hori aintzat hartuta, Kontsortzioak izango dituen staff, egitura teknikoa edo azpiegiturak ez dira handiak izango, teknikariez eta Kontsortzioa osatzen duten departamentuetako azpiegiturez baliatuko baita.

Kontsortzioko lan teknikoa gerenteak egiten du, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzako eta Gazteria Departamentuko teknikariek in lankidetzan.


Kontsortzioko zuzendaritza organoa Batzordea da. Erantzukizun nagusia dauka erabakietan, eta, batzordekideak une honetan Kontsortzioa osatzen duten departamentuetako politikariak dira.

Kontsortzioko Gobernu Batzordean toki erakundeen ordezkapena egotea eta Osakidetzak bertan parte hartzea aztertzen ari da.


Kontsortzioa osatzen duten departamentuetako teknikariek Batzorde Teknikoa osatzen dute. Batzorde Teknikoak Zuzendaritza Batzordeari aholkuak ematen dizkio zerbait erabaki aurretik.

Bestalde, Batzorde Teknikoak Programari buruz egiten dituen bileretan parte hartzen hasiak dira gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko maila lokaleko programen arduradunak; dena den, garrantzitsua izango litzateke, epe ertainean, udaleko teknikariek Batzorde Teknikoaren bilera guztietan parte hartzea, maila lokaleko Ingurune Irekiko Hezkuntza Planaren garapeneko ikuspuntu orokorra ezagututa.

Kontsortzioaren organigrama instituzionala



Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren kudeaketaren organigrama



4.5.1.1. Gerentea

Hurrengoak dira gerentearen eginkizunak:

- 1) Kontsortzioko presidenteari laguntzea, eta Gobernu Batzordearen erabakiak burutzea eta betearaztea.
- 2) Kontsortzioko zerbitzuen eta langileen burua da.
- 3) Zerbitzuak zuzentzea eta ikuskatzea.
- 4) Administrazioarekin egin beharreko tramiteetan, Kontsortzioaren ordezkaria izatea.
- 5) Gobernu Batzordeari eta presidenteari informazioa ematea, egiten dituen jardueri buruz eta Kontsortzioaren kudeaketari dagozkion arazo guztiei buruz.
- 6) Presidenteari aurrekontua egiten laguntzea.
- 7) Esleipen jakin bat duten ordainketa guztiak agintzea.
- 8) Kontuak ematea.
- 9) Gobernu Batzordeari langileak kontratatzea eta aldentzea eta langileen ordainsariak proposatzea.
- 10) Gobernu Batzordeak ematen dizkion eskumenak betetzea.
- 11) Pedagogi arloan, koordinazio teknikoa egitea, eta Heziketa Konpentsatorio eta Prestakuntza Okupazional heziketako proiektuen jarraipena egitea eta horiek burutzea.

4.5.1.2. Kontsortzioa osatzen duten departamentuetako teknikariak

Teknikariak Kontsortzioa osatzen duten departamentuetako ordezkariak dira, programak gauzatzean.

Eginkizun teknikoak daukate eta aholkuak ematen dituzte; gerentearekin batera, Gobernu Batzordeari proposamenak egiten dizkiote.

Gaur egun, hurrengoak dira Kontsortzioko Batzorde Teknikoaren kideak:

- Gerentea
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Osabidezko Hezkuntzako teknikari bat
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzako teknikari bat
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Departamentuko teknikari bat

4.5.1.3. Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programaren koordinatzailea

Jarraian ematen ditugun lanpostuaren monografiako elementuek, helburuek eta eginkizunek izan ezik, gaur egun lanpostua betetzen duen pertsonaren ikuspuntua adierazten dute.

HELBURU NAGUSIA**Programak finkatzea eta kalitatea hobetzea**

HELBURU ESPEZIFIKOAK
1.- Udal programen eskuartzea eta kudeaketa garatzea, Programa Eredu eta Programa Gipuzkoan garatzeko Planaren ikuspegi bera kontuan hartuta
2.- Programa garatzeko udal planak eratzea (arduradunei laguntzea)
3.- Programaren plangintza sistemaren beste elementu batzuk ezartzea (GLU eta hezitzaileei laguntzea)
4.- Kontsortzio / hezitzaileak, hezitzaileak / Kontsortzioa, eta udalerrien artean komunikaziorako bideak garatzea
5.- Udal programen arteko lankidetzan, proiektuak garatzea (hezitzaile taldeen arteko koordinazioaren bitartez, e. a.)

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**EGINKIZUNAK** ¹²

Programa bideratzea, eta Programa Eredua eta plangintza sistema eguneratzen parte hartzea	A
Programa aurkeztea berau ezarri nahi duten udalei eta maila lokaleko beste erakunde batzuei	N
Udal programaren arduradunari Udal Programa garatzeko Plana egiten laguntzea	A
Udal Programaren garapenaren segimendua egitea udalerrri bakoitzeko programaren arduradunarekin eta Kontsortzioko Batzorde Teknikoarekin batera	A
GLUko taldeei (gizarte langilea – hezitzailea) banaka esku hartzeko plangintzan laguntzea; era berean, taldekako eskuartzea eta komunitateko eskuartzea planifikatzea bere gain hartzen duenari laguntzea	N
Kaleko hezitzaileei Programaren ebaluaketak egiten eta komunitatea aztertzen laguntzea	A
Hainbat udalerritako kaleko hezitzaileen arteko lankidetzan, proiektuak diseinatzen, abiarazten eta ebaluatzen jardutea	N
Udalerrriaren barruan, zerbitzu sistemen arteko lankidetzan, proiektuak diseinatzen, abiarazten eta ebaluatzen jardutea	N
Programaren prestakuntzako ekintzak diseinatzea, abiaraztea eta ebaluatzea	A
Gipuzkoa mailan, Programaren prestigio-memoria eta ebaluaketa egitea, udalerrri bakoitzean egindako Programaren ebaluaketa oinarri hartuta	A
Hezitzaileei era jarraian laguntzea	A
Arazo teknikoak dituzten Programaren profesionali laguntzea	A
Hezitzaileen eskaerak jasotzea eta premiak hautematea (prestakuntza eta beste) eta	A

¹² A = aldizkakotasuna duena; N = noizean behingoa.

KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA

transferitzea	
Informazioa eta tresnak banatzea (proiektuak, produktuak, ideiak, ...)	A
Txostenak idaztea	N
Kontsortzioko Batzorde Teknikoak eskatutako beste edozein zeregin betetzea	

EZAGUPENAK

Gizartean eta Hezkuntzan esku hartzeko Programa (sakonki)
Gizarte Plangintza eta Ikerkuntza
Toki administrazioaren antolakuntza eta funtzionamendua
Gizarte zerbitzuetako antolakuntza eta funtzionamendua (udaleko gizarte zerbitzuak eta komunitateko gizarte zerbitzuak)
Giza baliabideen kudeaketa
Trebetasun sozialak, komunikatzeko, negoziatzeko trebetasunak
Informatika (Windows, oinarrizko programak)
Eta, orokorrean, kaleko hezitzaile lanpostuaren monografian aipatzen direnak

**KOMUNITATEKO GIZARTE ZERBITZUETATIK, ARRISKU EGOERAN DAUDEN ADINGABE ETA GAZTEEI
ZUZENDUTAKO GIZARTEAN ETA HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA EREDUA**

JARRERAK ETA GAITASUNAK

1.- Komunikatzeko trebetasuna
2.- Era aktiboan entzuteko jarrera
3.- Irmotasuna
4.- Organizazioa, ordena
5.- Ardura
6.- Zuhurtasuna
7.- Ekimena
8.- Laburbiltzeko gaitasuna

**LANPOSTUA ESKURATZEKO BEHARREZKOAK DIREN PRESTAKUNTZA ETA
ESKARMENTUA**

Prestakuntza: Unibertsitateko Diploma (Gizarte Lana, Gizarte Heziketa) edo horri lotutako lizentziaturak

Eskarmentua: Antzeko programetan lan zuzena egin izana

ERANTZUKIZUNA

ERABAKI MOTAK

Zeri buruz eta nola informatu.
Premiak lehenestea.

AKATSAK HAUTEMATEKO ALDIA

Hilabetea baino gutxiago

AKATSEN ONDORIOAK

Hezitzaileen talde – departamentuaren arteko harremanak okertzea
Kontsortzio-udal-hezitzaileen arteko harremanak okertzea
Programa ez izatea erakundeek eskatutakoaren arabera
Programa ixtea

ERABILITAKO MATERIALAK ETA TRESNAK

- Autoa
- Hornitutako bulegoa
- Telefonoa, faxa
- Ordenagailua
- Bulegoko materiala

ARRISKUAK

Arrisku fisikoak	Arrisku psikikoak
Auto istripua	Estresa Lanaz gogaiturik egotea

BEREZIKI ZAILAK DIREN EGINKIZUNAK

Udalerrietan ezarritako programen egoerari buruzko informazioa laburbiltzea; informazio hori errealitateari egokitzea. Beharrezko informazioa eta nahikoa izatea. Hezitzaileei Kontsortzioaren eskaerei buruzko informazioa ematea, bereziki eskaera horiek lana, presioa eta aldaketak berekin ekartzen dituztenean.

JARDUERAN SOR DAITEZKEEN ARAZOAK

Beti "tartean" egotea, "tirabirak" sortzen diren tokian egotea.

Bakoitzak bere bulegoa eta laguntza tekniko jarraitua izatea eskatzen da.

4.5.1.4. Kontsortzioari lotutako beste giza baliabide batzuk

Aholkularitzako pertsonal espezifikoa

Kontsortzioak, gainera, aholkularitza zerbitzua eskainiko duten langile espezifikoen kontratatuko ditu.

Unibertsitatearekiko lankidetzak

Eta Unibertsitatearekin hainbat arlotan lankidetzan ari izango da.

Bitarteko materialak eta finantzarioak

Kontsortzioak badauka dokumentazioa kudeatzeko eta artxibatzeko bulego bat. Bestalde, adierazi dugun bezala, Kontsortzioa osatzen duten departamentuetako azpiegiturak Kontsortzioaren eskura egongo dira, Kontsortzioak hala eskatzen duenean.

Erakunde partaideek bitarteko ekonomikoak emango dituzte urteroko aurrekontu baten bitartez –gaur egun gutxi gora behera 56 milioi pezetakoa da–, eta departamentu bakoitzak jarriko dituen langileak eta azpiegitura hortik kanpo geratuko dira.